BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

4043

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 1ekoa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariarena. Honen bidez, batetik, PCA-208-2012-VI administrazio espedientea –prozedura laburtuko 145/2012-C administrazioarekiko auzi errekurtsoari buruzkoa– Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Bilboko Epaitegira bidaltzea xedatzen da, eta, bestetik, balizko interesdunak epatzen dira, epaitegi horretan ager daitezen.

Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Bilboko Epaitegiak PCA-208-2012-VI administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du, zeina izapideetan baitago 03405 profesional-zenbakiko ertzainak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2012ko maiatzaren 22ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako 145/2012-C zenbakiko prozedura laburtuan. Ebazpen horren bidez, ezetsi egin zen lanpostuan jarduteko zerbitzu-aldia esleitzen duen Giza Baliabideen zuzendariaren Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa.

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Bilboko Epaitegira bidaltzea eskatutako administrazio-espedientea.

2.– Prozedura honetako interesdunei epea jartzea, egoki baderitzote, Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegian ager daitezen —145/2012-C prozedura laburtuan—, eta euren interesen alde egin dezaten. Epe hori, hain zuzen ere, 9 egunekoa izango da, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 1a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.